

{ asteari zeharka begira } **Pello Otxandiano**

«Previous Euskadi»

Asteari zeharka begiratuta ezin Bateragune auzia alboratu. Bistan da zerbait mugitu dela Estatuaren barrunbeetan Auzitegi Goreneko hamasei epailek aho batez epaiketaren errepikapena agintzeko. Hala esan da asteon eta ados nago neu ere: azken hilabeteetan ezkerreko independentismoak Estatuaren gobernagarritasuna baldintzatuz egin dituenak egin izan ez balitu gaur ez genuke Bateragune hizpide.

Kideak ditut denak eta asko miresten ditut plano politiko zein pertsonalean. Distantzia behar da gauzak ondo aztertu eta behar bezala izendatzeko, eta nahiago gaur astean zehar bigarren mailan geratu den gai bat hartu hizpide: Europako funtsen inguruan pleno monografikoa egin da Erkidego Autonomoko parlamentuan. Egina da antzerako saio bat Nafarroako Parlamentuan ere lehenago.

Penagarria da erabat hain momentu berezian herri eztabaida nola ukatzen den ikustea. Horixe da asteazkeneko plenoan gertatu zena eta uste dut gobernuki-deen gaitasun politiko falta jartzen duela agerian beste ezer baino gehiago. Ez dirudi garai honen kontzientzia politikorik dutenik, edo gutxienez, bistan da ez direla kontzientzia horrekiko koherentzian jokatzeko gai.

Trantsizio ekologikoari buruz ari garela, adibidez, joan dagoena gehiegi baita Europako dirulaguntzen gai horren inguruan goi mailako eztabaida estrategikorik ez egiteko. Izan ere, Parisko Itunean ezarritako helburuak beteko badira (eta ez betetzea hondamendia litzateke termino zibilizatorioetan), aldaketa sakon bat beharko da orain arteko politika publikoetan. 2030erako eraldaketa handi horren oinarriek finkatuta behar dute, zeina berotegi efektuko gasen %55eko murrizketa-ekin kuantifikatu den (1990eko mailarekiko).

Sakon-sakoneko eraldaketa material eta kulturalaren aurrean gaude, lidergo publiko indartsua eskatzen duena. “*The man in the moon*”, horrela definitu du Europar Batasunak berak 2050 baino lehenago karbono neutraltasuna lortu asmo duen misio zibilizatorioa, Kennedyk 1961ean iragarritako “*moonshoot*” hari erre-

ferentzia egiten dion izenburu iradokitzailea. Merkatu ekonomia ez baita gai misio hori gauzatzeko, ez bada orientazio “sozialistako” politika ekonomikoak gidatuta (merkatua erregulatuz, ekonomian esku hartuz, planifikatuz, aberastasuna banatuz, trantsizioaren kontrako merkatu interesei mugak jarritz eta abar). Trantsizio ekologikoaren erronka kolosalari neurria har diezaiozun: kontua ez da soilik karbono neutraltasuna ahalik eta lasterren erdieste (zeina erronka itzela baita berez), baizik eta, horrez gain, trantsizioak sozialki justua izan beharko du krisialdi soziala eutsiezin bilakatuko ez bada. Justizia klimatikoaren kontzeptua gakoa izango da hamarkada honetan.

Askok hitz egiten da gobernantza ereduaz. Zalantzarik gabe halako erronka zibilizatorioak bestelako elkarlan dinamiken bidez baino ez daitezke erdiets. Pandemiaren zehar argiki ikusi da geure herri gaitasunak eraginkorki aktibatzen urrun gaudela, eta aktibazio horrek eskatzen duen lidergo politikoa dugula

Kontua ez da soilik karbono neutraltasuna ahalik eta lasterren erdieste (erronka itzela berez), horrez gain, trantsizioak sozialki justua izan beharko du

faltan. Baina, horrekin batera, ezinbestekoa da orain arteko politika publikoen berrikuspen sakon bat egitea: gas sektorearen aldeko apustua eta energia berri-erregulazioaren garapenik eza, ekologikoki jasan ezin diren eta errentagarritasun sozial gutxi azpiegitura handien eraikuntza, Euskaltelen salmenta, sektore teknologikoa desagitea (Ibermática), sektore publikoa argaltzea, industria politika proaktiborik eza, ekonomia zirkularrari bizkarra ematen dion hiri hondakinen kudeaketa, industria hondakinen kudeaketaren pribatizazioa, gizarte zerbitzuen sistema zaintzaren krisiaren arora egokitzeko inbertsiorik eza eta abar.

Gaur arte ekarri gaituen politika ekonomikoaren atal funtsezkoen inpregnazioak gabe ez dago aurrerabiderik. “Previous Euskadi” beharko genuke “Next Euskadi” eztabaidatu ahal izateko. •